

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Egindako instalazio berri batzuek Itzagaondoa, Lizoain, Untzitibar eta Urrotz-Hiria urez hornitzen direla bermatuko dute

Barcina Lehendakariak Nafarroako Ubideko ura hartzen duen azpiegitura inauguratu du. 5,3 milioi euroko inbertsioa egin da.

Martes, 14 de enero de 2014

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak Itzagaondoa, Lizoain-Arriasoiti, Untzitibar eta Urrotz-Hiria udalerrietako hogeitaz bat herritan bizi diren 1.125 nafar inguru edateko urez honitzea bermatuko duten instalazio berriak inauguratzen izan da astearte honetan.

Azpiegiturak Nafarroako Ubidetik hartzen du ura, Mendinuetako jaurerriaren inguruetan. Hala, duela 20 urte baino lehenagotik herri horiek pairatu izan dituzten ur-murrizketak errepikatzea saihestuko da.

Barcina Lehendakariak azpimarratu duenez, instalazio horiei esker herritarren "oinarrizko" eskaria bermatuko da, ura "kalitatezkoa eta behar beste" izatearena alegia. Nafarroarentzako "beharrezko" azpiegitura da, Itoitz-Nafarroako Ubidea bikotea bezala.

Obrak Construcciones Luciano Elcarte eta Hidroambiente enpresek burutu dituzte 2007 eta 2013 urteen artean, eta 5.372.107,74 euroko aurrekontua izan dute. Zenbateko horretatik, Nafarroak 4.169.988,88 euro eman ditu, hau da, diruz lagundu ahal izan den inbertsioaren % 90.

Edateko ura tratatzeko instalazio bat, hainbat tanga eta dagoeneko edatekoa den ura herri bakoitzerako hornidura erreglatzen duten tanga guztietara banatzeko 48 kilometroko hoditeriak osatzen dute azpiegitura.

Azpiegituraren bidez hornitzen diren herriak Itzagaondoa (Ardanaz, Idoate,



Agintariak Urrotz-Hiriko edateko ura tratatzeko plantan instalazio berrirari topa egiten.



Barcina Lehendakaria bertaratutakoei hitz egiten.

Lizarraga, Erreta eta Zuatzu), Lizoain-Arriasgoiti (Beortegi, Janaritz, Lerrutz, Lizoain, Mendiorotz, Oskaritz, Erredin, Urotz, Iheltz eta Zalba), Untzitibar (Altzorritz, Artaitz, Zenborain, Naxurieta, Untziti, Zabaltzeta eta Zorokiain) eta Urrotz-Hiria dira.

Inaugurazio-ekitaldian izan dira José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria, Francisco Pérez Toki Administrazioako zuzendari kudeatzailea eta tokiko ordezkariak, esate baterako, Itzagaondoako (Elsa Plano), Lizoain-Arriasgoitiko (Amaia Ekisoain), Untzitibarreko (Javier Linto) eta Urrotz-Hiriko (Fermín García) alkateak.

Instalazioak

Azpiegitura 2005-2008 eta 2009-2012ko tokiko inbertsio-planetan barne hartu izan da eta Mendinueta Irtenbidea esan izan zaio. Ura Nafarroako Ubidetik hartzen du eta urtean 0,115 Hm³-ko emaria emango du.

Ponpaketarako etxola bat du, 2 ponpa dituen (horietako bat erreserbarako). Segundoko 15 litroko emaria bultza dezakete sistemaren hasiera osatzen duten instalazioetara. Ur gordineko 750 m³-ko edukiera duen tanga batek eta edateko ura tratatzeko instalazio batek osatzen dute. Azken horrek automatikoki funtzionatzen du, segundoko 15 litro trata ditzake, urrutitik gidatu eta kontrola daiteke eta ura edatekoa dela guztiz bermatzeko nahasketa, koagulazioa, dekantazioa, iragazketa eta amaierako desinfekzioaren prozesuak aztertzen dituen sistema du.

Ura tratatutako ura duen 750 m³-ko tanga batetik biltzen da. Ura herri bakoitzeko tanga erregulatuera behar bezala banatzen dela bermatzen du, kopuruaren eta kalitatearen aldetik.

Horretarako, burdinurto nodularreko eta polietilenoazko hodiekin 48 kilometroko tutueria eraiki da, baita hasierako instalazio bakoitza urbanizatzeko lanak egin ere (sarbideak zolatzea, hesiak jartzea etab.). Ponpaketarako etxolan eta edateko ura tratatzeko instalazioan ere argindarraren hargunea jarri da. Bestalde, urak gainezka egitea ekiditeko erregulazio-sistemak ezarri dira, baita klorazio-ekipo osagarriak ere halakorik ez zuten herrietako erregulatzeko tanga guztietan.

Gogorazi beharrekoa da Mendinueta Irtenbideak sistema hori Iruñerriko Mankomunitateko sareetan sartzea ahalbidetzen duela. Alde batetik, Zenborainen lotuko lirateke eta, beste alde batetik, Mendiorotzen; hala, eskualde horretan sare itxia osatuko litzateke.

Lehen argazkiaren oina (ezkerretik eskuinera): Fermín García, Yolanda Barcina, Francisco Pérez eta José Javier Esparza.

Galería de fotos



Urrotz-Hiriko edateko ura tratatzeko instalazioa.